



Esther Piñero González
Gipuzkoako Esku-hartze
sozial arduraduna

@ estherp@
euskadi.ccoo.es

Mahia irekita... Negoziatu beharra!

Gipuzkoako Gizartegintzako II. Hitzarmenaren mahaia azarotik dago irekita. Orain arte 5 bilera izan ditugu baina eduki gutxikoak alde sozialaren interesak aintzat hartzen baditugu. Sektorean ordezkariak duten hiru sindikatuek, ELA, LAB eta CCOO, plataforma bateraturako akordioa lortu genuen sindikatu bakoitzeko asanbladen bermearekin eta proposamen hori da mahaian babestu duguna.

HEDATZEN PATRONALAK martxoan erantzun zuen. Bere helburua II. Hitzarmenerako “enplegua mantendu eta sektoreko entitateen biziraupena” da. Betetzat ematen dituzte I. Hitzarmenean aurreikusitako lan baldintzen hobekuntzak, finantzazio publikoa nahikoa ez dela salatzen dute, Gipuzkoako Aldundiarena zein Eusko Jaurlaritza eta zerbitzuak kontratatzen dituzten udalenak, eta administrazioen 2015 urterako aurrekontuen izozketan hartzen dute aitzakiatzat. Laburbilduz, Hedatzenek ezetz esan dio proposatutako guztia.

CCOOn ez dugu istorioaren eta gaurko egoeraren ikuskera honekin bat egiten, horregatik apirilaren 29ko bileran proposamen ekonomikoa egiteko eskatu genion patronalari. Aurrekontuak itxita eta luzatuta daudelako ezinezkoa dela esatea eta Hedatzenek nahi duen moduan eztabaida irailerako uztea 2016a ere galdutzat ematea da. Argi esan nahi dugu ez diegula 2015. urteko hobekuntzei ezetzik esango, hori lortzeko tresnak bilatu beharko dira, eta hitzarmenak iraunaldi nahikoa izan beharko du sektorean finkatu eta hau lan baldintza duinez hornitzeko.

Gai ekonomikoaz gain, CCOOrentzat oso garrantzitsua da lanaren antolaketak, langileen funtzioak bakoitzaren prestakuntzaren arabera izatea, adostutako lan egutegia bermatzea lanaldiaren

%100arekin, subrogazio prozesuak, lan poltsa, berdintasuna eta lan osasuna hobetzea, eta ezinbestekoa da I. Hitzarmeneko Xedapen Gehigarrietan jasotzen diren eta lantzeke dauden gaiak ebaztea esaterako, erantzukizuna, plusen bateragarritasuna, gaueko lana, zerbitzu batzuen erresidentzialtasuna eta adingabekoen zentro espezializatueta baldintzen hobekuntza bezalako gaiak.

Hurrengo negoziazio bilera ekainaren 9an izango da eta patronalaren aldetik jarrera aldaketa espero dugu gaiak landu eta Gipuzkoako Gizartegintzako langileen baldintzak duin duko dituen akordioa negoziatu ahal izateko. 📌

**ez diegula
2015. urteko
hobekuntzei
ezetzik
esango, hori
lortzeko
tresnak
bilatu
beharko dira**

